



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abaildu 'indarrez erori'	« Abailduta , giroa itogarria egiten ari zaidala ulertu dut...»	121
absentzia 'falta'	«Andersonen absentzia ez da horren albiste txarra: nire asmoa Euskal Herritik ahalik eta gehien urruntzea den heinean...»	38
agidanez 'dirudienez'	«...euskal arte plastikoen bilakaerari buruz hitz egin beharko diet, agidanez .»	121
ahantzura 'ahaztea'	«— Bizitzaren gauzarik inportanteena ahantzura da.»	66
alajaina 'bai horixe'	«— Zuek bai ondo bizi zaretela, alajaina ...»	24
aldez edo moldez 'nolabait'	«Bestalde gero eta konbentzituago nago amaitu behar dudala, aldez edo moldez , Ellenekiko istorioarekin.»	101
aldra 'mordoa, pila'	«...ikasle-belaunaldi askoren aldren eskuetatik pasatu izanaren ezin nahasizko arrastoak ageri ditu gelak.»	39
anaidi 'lagunartea, lagun taldea'	«...Beta-Kappa-Pi ikasle- anaidikoak atea indarrez zeharkatu, ni pirata kutxa batean sartu eta kanpus bertako Mosquito Lake-ra bota nazaketela...»	40
antiklerikal 'apaizgoaren aurkakoa'	«...nire iruzkin (antza) antiklerikalak arintzeko eskatu dit.»	56
arazketa 'garbiketa'	«...Baina etengabe geroratzen dut arazketa -saio halabeharrez neketsuari ekiteko unea.»	67
arbiatu 'mespretxatu'	«...maskulinotasuna betiko arbiatzeko bide segurua izango balitz bezala.»	14
arrakala 'pitzadura'	«...askatasunerako bide malkartsuan etengabe irekitzen diren arrakalena alegia...»	69
aseptiko 'kutsatu gabea'	«...gramatika kontuen azalpen aseptikoagoetan murgildu naiz...»	71
atondo 'ataria, sarrera'	«...Arantza eta gure hiru txikiak, aireportuko atondoan nire zain...»	114
atzera eduki 'berriro eduki'	«— Eztabaida hau izan diagu jada, Joseba, eta ez nago prest atzera edukitzeko , behin eta berriro...»	18
aztoramendu 'asaldura'	«Gelakideek behintzat ez dute aztoramendurik erakusten...»	57
balizko 'ustezko'	«Edo bestela, hura izaten ari ez nintzen ametsaren balizko atal bat baino ez zela.»	37
berdindu 'ase, bete	«— Ba behin zerbait kontatzen hasita, oso jendetasun gutxikoa da adiskideen gosea ez berdintzea ...»	110
berme 'garantia'	«...hemengo egunkariak, alde horretatik, bermea dira: ez dakarte albiste ñimiñorik Euskal Herriari buruz.»	69
bonet 'kapela'	«Zerbitzariak Daniel Boonena bezalako bonetaz estalita doaz...»	86
brida 'uhala'	«Aro berritik aurrera, ordea, ez dut egin nire burua bridatzeko inolako esfortzurik.»	93
bulkada 'sakada'	«...urruntzen den euskaldun orok idazteko bulkada saihestezina sentitzen omen duen horixe.»	47
burlaize 'trufa eginez'	«— Zertara dator burlaize hori, Ellen?»	111
burokratiko 'funtzionarioei dagokiena'	«Badakizu, sailburutzak ematen duen lan burokratiko honekin guztiarekin; paperak, paperak eta paperak...»	96
deliberoa 'erabakia'	«...su-etena amaituta eman bezain laster, Euskal Herritik alde egiteko deliberoa hartu dut.»	7



diru-esleipen 'diru ematea, adjudikazioa'	«...antza denez, irakasle bat ordaintzeko diru-esleipena ; hala ere, etsitzeko zorian egon zela aitortu dit...»	19
dontsu 'dohaintsu'	«...nahikoa da gure euskara dontsuaren antzinatasunaren eta misterioaren ipuinak puztearekin...»	61
egitandi 'balentria'	«Orreagako egitandia goraiatu diet, gure mugarri nazionala...»	88
eldarnio 'zoramena'	«...edo Euskal Herrian bertan dabiltzan sasi-zientzialari horien eldarnioekin , nahiz eta jakin lukainka hutsak direla...»	62
enegarren 'hamaikagarren'	«Nafarroako presidentearen enegarren salaketa Euskal Erkidego Autonomoaren asmo "kolonizatzaileen" aurka.»	36
eri 'gaixo'	«Gizarte eri batean bizi gaitun.»	34
erreboilo 'arrain mota'	«— Ez dun erreboiloa probatu, Arantza. Oso itxura ona zaukan.»	15
eskumikatu 'elizatik betiko bota'	«Bi aldiz izan zen eskumikatua eta 1791ko Iraultzan parte hartu zuen...»	81
esplizituki 'ageriko esanahiarekin'	«Alde batetik portaera horren onarpena, esplizitoki edo implizitoki, gizabanako baten enpleguaren edo hezkuntzaren gain ondorioak. ekar ditzakeen heinean..»	42
etxezulo 'oso etxezalea'	«Euskaldunak oso etxezuloak izan ohi direla aipatu zidan Anderson doktoreak...»	98
falafel 'ekialdeko janari mota'	«— Nik falafelekoa . Saltsarekin. Oso ona egon ohi da.»	30
farisaiko 'hipokrita'	«Zeren eta orain kooperatibismoaren hire etika farisaiko hori aterako baitidak hizpidera, ezta?»	24
gaingiroki 'azaletik, sakondu barik'	« Gaingiroki azaldu dizkit nik eman beharko nukeen ikastaroaren lerro nagusiak...»	19
goiliardo 'apaiz talde kritikoa elizarekiko'	«...Durango aldeko olerkari goliardo batzuen inguruko azalpen nahasi bat inprobisatu dut...»	72
gurpenezko 'adoraziozkoa'	«Antzinatasun materialaren erakustaldiak beti du gurpenezko eragina batrez besteko estatubatuarraren gain...»	62
hara 'beitu!'	«— Hara! Zer moduz?»	109
harrikada batera egon 'oso hurbil'	«...mendi itzelak dauzkagu hemen, eta parke nazional ederrak harrikada batera .»	20
haztatu 'eskuetan izan'	«...hurrengo seihilekoetarako heldu zaidan eskolak emateko eskaintza haztatu eta, azkenik, onartzea erabaki dut.»	121
hits 'triste, goibel'	«Hemen ere negua den arren, Anchorageko zeruko argi hitsarekin ohituta, miresgarria iruditu zait Iruñekoaren kolore bizia...»	115
implizitoki 'zeharkako bigarren zentzua duena'	«Alde batetik portaera horren onarpena, esplizitoki edo implizitoki , gizabanako baten enpleguaren edo hezkuntzaren gain ondorioak. ekar ditzakeen heinean..»	42
itzuri egin 'alde egin, ihesi joan'	«Galdera zuzenari ezin itzuri egin , eta errusierarik ez dakiela aitortu behar izan digu...»	59
jai-alai 'frontoia'	«...Hawaiin ez dagoela ez euskal etxerik, ez jai-alairik edo antzeko ezeren arrastorik.»	121
kikildu 'beldurtu'	«...oraingoan ez naiz kikildu : lotsarik gabe esan diet Europako hizkuntzarik zaharrena dela euskara.»	61
koertzio 'mehatxu'	«...eta koertzio -elementuak barnera ditzake...»	41
korolario 'ondorio zuzena'	« Korolario bat eta guzti asmatu nion esaldiari, edo jarraipen bat, ez dakit nola deitu...»	7



lehor 'itsaso edo lakua baten bazterra'	«Lata bat garagardo epel eskaini zidaten lehorra –egia esan, elurra– zapaldu orduko...»	85
limesa 'harrizko muga'	«...Euskal Herriaren eta Inperioaren arteko limesa ...»	88
lo susta 'lotan'	«Lagunen aholkuei jarraiki, une egokietan Orfidal dosi batzuk irentsi, eta hegaldiaren gehiengoa lo susta batean igaro nuen...»	37
logale 'logura'	«— Ez al duzu logalerik? »	92
loria 'ohorea'	«...euskal zibilizazioaren zabalkuntza eta loria , indoeuropar inbaditzaile krudelen aldrek dena suntsitu zuten arte.»	62
lubaki 'lurrean egindako zulo luzea'	«...Gerla Handian saru eta milaka euskal soldadu lubakietan gorpu gelditu zirelarik...»	102
lukainka 'Txorizo mota bat'	«...edo Euskal Herrian bertan dabiltzan sasi-zientzialari horien eldarnioekin, nahiz eta jakin lukainka hutsak direla...»	62
magnetofono 'ahotsa grabatzeko tresna'	«Gainera, egia esan, eskolak magnetofonoz grabatzeak ez lidake libratuko euskal kontuen inguruan hitz egiteaz eta...»	55
malguki 'burdinazko gailu elastikoa'	«Ia ustekabeen, nire eskuari malguki batek eragin balio bezala, eta hutsik egin gabe, Henrike Knörr irakaslearen e-mailaren kopia jaso dut...»	7
mantso 'geldoa'	«Edonola ere, gatazka osteko berreskurapena mantsoa izan zen Euskal Herrian...»	103
menia 'su-etena'	«Nazioarteko aditu baten iritziz ezkorra meniaren jarraipenari dagokionez.»	116
miko 'pixka bat'	«Tabernaria oso adeitsua da, eta berehala enteratu naiz, etsipen miko batez, tabernaren izenak ez duela hainbesteko zerikusirik eboluzioaren teoriaren aitarekin.»	48
nini 'seina, txetxea'	«— Onartuko dun, edozelan ere, ez dela unerik egokiena mundura nini bat ekartzeko...»	18
ñimiño 'oso txikia'	«...hemengo egunkariak, alde horretatik, bermea dira: ez dakarte albiste ñimiñorik Euskal Herriari buruz.»	69
ondu 'kupelean zahartua'	«— Baina ez edozein ardo; ondua baditen, hobeto.»	34
orbangabe 'zikinkeriarik gabea'	«...eta osoago agertzen dira orain, orbangabe . Luze egin zait itzulera, izugarri luze, eta pot eginda iritsi naiz Europa zaharrera.»	114
orezta 'oreina, azaleko puntu	«Ederra da Ellen, ilegorria, aurpegi biribil oreztaz bete baten jabe...»	68
orfidal 'lo eragiteko botika'	«Lagunen aholkuei jarraiki, une egokietan Orfidal dosi batzuk irentsi, eta hegaldiaren gehiengoa lo susta batean igaro nuen...»	37
ostilamendu 'tresneria'	«...nahiz eta bidaiaria honetan, janztekoaz eta ohiko ostilamenduaz gain, liburu eta apunte dezente eraman beharko ditudan...»	28
ostrakon 'zeramikazko zati idatzia'	«Internetetik ostrakon haietako batzuen argazkiak jaitsi, eta Power Point bidez proiektatu dizkiet ikasleei.»	62
pitzatuta egon 'burutik eginda egon, zoratuta'	«— Hi pitzatuta hago! Zer uste duk hire ergelkeriak irakurtzeko lana hartzen dutela, ala?»	16
plato 'telebista saio eta filmak egiteko tokia'	«...edo <i>Supersalidos</i> bezalako film baten plato abandonatuan sartu izan banindute bezala.»	40
pott egin 'porru egin, nekatu'	«...eta osoago agertzen dira orain, orbangabe. Luze egin zait itzulera, izugarri luze, eta pott eginda iritsi naiz Europa zaharrera.»	114
prozac 'botika mota'	« Prozac potetxo bat erdikusi dut bere esku-zorro handian...»	58
sehaska-jazarkeria 'gatzetxoekin ligatzeko grina'	«Eta ez hasi sehaska-jazarkeriatan , mesedez, tipa horrek ez dik hogeitau urte ere izango eta.»	23



sexu-jazartze 'sexu-erasoa'	«...bihar sexu-jazarketaren kontrako arauen inguruko elkarrizketara joan behar dudala gogorarazi dit, eta adeitsu agurtu nau.»	39
tenkatu 'tiratu gogortu arte'	«Baina soka gehiegi tenkatzea izan zitekeela pentsatu nuen, azkenik...»	55
to 'hartu!'	« To beste esaldi bat, hire artxiborako.»	25
trepeta 'tresna, aparailua'	«...larru-ehiztarien eta urre-meatzarien garai mitikoetako trepetez dekoratutako taberna moduko bat...»	86
usina 'labe garaia, ola'	«...eta baita Mauleko usina kimiko handiena...»	103
ustiakuntza 'aprobetxamendua'	«...bide batez esanda, Alaskako petrolioaren ustiakuntzari esker.»	46
xerka 'bila'	«...haren izenaren, haren abizenaren, haren nickaren xerkan , baina alferrik izan da.»	107
zama 'pisua'	«Hik ez dakik zer den bizitzea zama ori gabe.»	77
zaugarri 'zauri egilea, mingarria'	«...ondorio zaugarriak dituztenean pertsona baten ikasteko edo lan egiteko ahalmenetan.»	41
ziniko 'gezurtero lotsagaldua'	«Benetan ez zakiat hire burua konbentzitzeko eraiki duan kontu hori sinestera iritsi haizen, azkenean, edo ziniko hutsa besterik ez haizen...»	25
zirtakatu 'txinpartak jaurtiki'	«Ameskeria zirtakatze-hots batek apurtu du: berriro isuri da kanpora eltzean berotzen ari nintzen kafe...»	70